

**GAIA: HAINBAT ORGANO JUDIZIALEK IKUSTALDIK EGITEA, ARRATSALDEZ, IRAILEAN ETA URRIAN.**

COVID-19 pandemiaren ondorioz, eta osasun-agintaritzekin bat etorritik, hainbat neurri hartu behar izan dira pandemiari eusteko. Alde horretatik, pertsonen mugikortasuna faserik murriztaileenean egon denean Justizia Administrazioaren esparruan ezarri behar izan diren neurrien ondorioz, funtsezko zerbitzuak eskaini dira soilik.

Neurri horien ondorioz Justizia Administrazioaren jarduna modu nabarmenean moteldu delako, hainbat mekanismo arautu behar izan dira etendako prozeduren pilaketari irtenbide azkarra ematen saiatze aldera. Horretarako, jarduera judiziala eta osasun-eskubidea bateragarri izatea ahalbidetuko duten neurriak hartu dira, bai Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langile guztientzat, bai eta administrazio horrekin harremana duten herritar eta profesionalentzat ere.

Hori dela-eta, 2020ko apirilaren 29ko BOEn argitaratu zen 16/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 28koa, Justizia Administrazioaren eremuan COVID-19ari aurre egiteko prozesu- eta antolaketa-neurriei buruzkoa, Diputatuen Kongresuak baliozkotua 2020ko maiatzaren 13an egindako bilkuran.

III. kapituluan, antolaketa-neurriak eta neurri teknologikoak jasota daude. Neurri horien artean, lanaldiari buruzko 27. artikuluan jasotakoak honako hau xedatzen du:

1. *"Alarma-egoerak irauten duen bitartean eta **alarma-egoera amaitu eta hiru hilabete igaro arte**, goizeko eta arratsaldeko lanaldiak ezarriko dira bai Justizia Administrazioaren letraduentzat, bai Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten gainerako langileentzat, zerbitzu eta jurisdikzio-organo guztietan."*
2. *"**Justizia Ministerioak eta Justizia-arloko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek ezarriko dute lanaldiaren banaketa eta ordutegiak finkatu**, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik".*

Hortaz, goiz eta arratsaldeko lanaldia 2020ko irailaren 20ra arte ezarri ahal izango da, egun hori barne, eta Lan eta Justizia Sailak du lanaldiak eta ordutegiak ezartzeko eskumena.

Geroago, JUS/394/2020 Agindua eman zen, maiatzaren 8koa, Justizia Administrazioaren Laneko Segurtasunaren Eskema eta Konfinamendua Arintzeko Plana onartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko (2020ko maiatzaren 9ko BOE, 129. zk.); horren helburua da Justizia Administrazioaren normaltasuna lortzeko eta berraktibatzeko zenbait tresna



ezartzea, eta berraktibazio hori Lan Segurtasuneko eskema bat jarraitu eta Konfinamendua Arintzeko Plana ezarrita egingo da.

Arintzeko Plana II. ERANSKINEAN dago jasota, "Arintzeko Plana-Programatutako laneratzea hastea", eta 4 fase ditu:

a) I. fasea.- "Programatutako laneratzea hastea": langileen % 30-40 joango da lantokira.

Fase hau maiatzaren 12tik maiatzaren 25era bitartean egin zen, biak barne.

b) II. fasea.- "Prozesuko epeak berriz aktibatzeko prestatzea": langileen % 60tik % 70era bitartean joango da lantokira, goizeko eta arratsaldeko txandetan, **hala ezartzen bada**.

Fase hori maiatzaren 26tik ekainaren 8ra bitartean izan zen, biak barne, eta segurtasun-distantzia errespetatu ezin zen bulego edo organoetan goizeko eta arratsaldeko txandak ezarri ziren.

c) III. fasea.- "Ohiko jarduera, prozesuko epeak aktibatuta": langileen % 100 joango da lantokira, goizeko eta arratsaldeko txandetan, **hala ezartzen bada**.

Gaur egun, ekainaren 9az geroztik, fase horretan gaude, eta goizeko eta arratsaldeko txandak ezarri dira segurtasun-distantzia errespetatu ezin den bulego edo organo haietan; txanda hauek aurreko fasean baino bulego eta organo gutxiagotan ezarri dira, beharrezko segurtasun-distantzia egon zedin lan egin baita.

d) IV. Fasea.- "Alarma-egoeraren aurreko egoerarekin bat etorriko den jarduera normalizatua": langileen % 100 joango da lantokira, lanaldi arruntean.

Fase hau deklarazio horren aurreko funtzionamendu-egoerara itzultzea ahalbidetuko duten osasun-gomendioak kentzen diren unean hasiko da.

Aginduaren III. eranskinean, "Justizia Administrazioan arratsaldeko txandak betetzeko irizpideak" arautzen dira, eta eskumenari dagokionez, honako hau ezartzen da:

*"Arratsaldeko txandak bere jardun-eremuan **eskumena duen administrazio bakoitzak bakarrik ezarriko ditu**.*

*Neurri hori hartzeko arrazoia izango da, soil-soilik, COVID-19ri aurre egiteko beharrezkoak diren osasun-agintarien irizpideak bete behar direla."*



Eranskin horretan bertan, arratsaldeko lanaldiko jarduerak ere jasotzen dira, eta honela dio:

**"Arratsaldeko lanaldian, oro har, ez da jendeari edo profesionalei arreta emateko zerbitzurik emango, haren bidez kotasuna alde batera utzi gabe, aldez aurretik ordutegi horretan jarduketak egitea erabaki bada.**

***Salbuespenez, arratsaldeko txanda borondatez eskatu ez duen kidego espezifikoko bateko langileek jardun behar badute, kidego bereko beste organo batzuetako langileek ere jardun beharko dute."***

Lan eta Justizia Sailak du arratsaldeko txandak ezartzeko eskumena, eta arratsaldeko ordutegian egiten diren jarduketek salbuespenezkoak izan behar dute, eta osasun-agintarien irizpideei erantzuteko beharrak eragindakoa.

Justiziako sailburuordeak 2020ko ekainaren 5ean emandako ebazpenean xedatu zuen Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek Euskal Autonomia Erkidegoko justizia jauregietan arratsaldeko ordutegian ezarritako ikustaldiak egin behar dituztela, eta beharrezkoa den mekanismoa ezarri zuen arratsaldeko txandarik ezarri ez den organo edo bulegoetan uztailaren 31 baino lehenago ezarrita zeuden ikustaldiak egin ahal daitezen.

Gaur egun, arratsaldeko txanda ezarrita duten organo eta bulegoak Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2020ko ekainaren 25eko eta uztailaren 20ko Ebazpenetan daude jasota. Hala ere, kontuan izan behar da lanpostuen azterketa xehatua egiten ari garela, haien artean osasun-agintariek ezarritako segurtasun-distantzia errespetatzen dadin, langileen % 100ek goizeko ordutegian lan egin ahal izateko.

Hori guztia kontuan hartuta, eta hiru lurralde historikoetako idazkari koordinatzaileek eta Donostiako epaile dekanok iraileko, eta baita urriko ere, arratsaldeko ordutegian ikustaldiak egiteari buruz eta horiek egiteko langile faltari buruz adierazitakoei erantzunez, honako hau esan behar da:

Lehena.- JUS/394/2020 Aginduaren III. eranskinean jasota dago arratsaldeko ordutegian jarduketak ezartzea salbuespenezkoa dela, eta, beraz, beharrezkoa da jarduera horiek arratsaldeko ordutegian egiteko beharra justifikatzea. Kasu horretan, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak bulego edo organo judizial horretarako arratsaldeko txanda ezarri ez badu, borondatezko langileek jardungo dute ordutegi horretan.

Bigarrena.- Arratsaldeko ordutegian egin beharreko jarduerak egiten dituzten langileek ez dute egun horretan goizeko ordutegian lan egingo, eta 4 ordu eta 30 minutuko lanaldia bete beharko dute.



Hirugarrena.- Arratsaldeko ordutegian salbuespen gisa egin beharreko jarduketak ezartzean, sail honen mendeko langileek esku hartu behar badute informatzeko, deklaratzeko edo lekukotza emateko beren izaeraren arabera (itzultzaile-interprete, aditu judicial, hezitzaile, gizarte-langile, psikologo, auzitegi-medikuak, etab.), kontuan hartu behar da eurek ezarrita duten lanaldia goizekoa dela.

Laugarrena.- Apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretuarekin bat, arratsaldeko ordutegiko salbuespenezko jarduketan denbora-muga 2020ko irailaren 20a da.

Gasteiz, 2020ko abuztuaren 24a.

Sin.: M<sup>a</sup> Isabel Gabriel Bellido  
Justizia Administrazioiko zuzendaria